



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

Euskararen Nazioarteko Eguna 2024

LEHIAKETA

Urtero legez, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Hori horrela, Gipuzkoako EHAEOK lehiaketa bat abiarazi du: **Zeinen ederra den euskara!**

Helburua: arkitekturaren eta hirigintzaren esparruan euskara komunikazio-hizkuntza gisa bultzatu eta euskarazko hiztegiaren aberastasuna zabaldu.

OINARRIAK:

- Parte hartzaileek arkitektura edo hirigintzaren loturiko hitz bat aukeratu beharko dute eta hitz horren edertasuna erakutsi: hitzaren etimologia aurkeztu, hitzaren adierak desberdinak, edota berezi egiten dituen arrazoiak eman. Adibidez: harraska: Etim. de (h)arr(i) + aska. Bereziki, sukaldean baxera garbitzeko erabiltzen dena. Parte-hartzaileek euren sormena dantzan jarri beharko dute hitza(k) aurkezteko garaian: irudi baten gainean jarrita, segundu batzuetako bideo muntaia baten bidez, edota bertso edo olerki bat erabiliz, adibidez. Proposamena originalak eta inoiz argitaratu gabeak izan behar dute.
- Proposamen guztiak Gipuzkoako EHAEOn Instagrameko kontuan argitaratuko dira. Beraz, sare sozial horren eskakizunak kontuan hartzea gomendatzen da: irudiak 1080 x 1080 (1:1 proportzioan) eta bideoak segundu gutxi batzuetakoak izatea, adibidez.
- Parte hartzaileek proposamenak posta elektronikoz bidaliko dituzte kultura@coavngipuzkoa.eus helbidera, eta GAIAn "Euskararen edertasuna" jarri beharko da. Aurkezten den proposamenari izenburu bat jarri behar zaio, aukeratutako hitza bera izan daitekena. Horrekin batera, egilearen datuak (izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektornikoa) bidali beharko dira aparteko Word dokumentu batean.



COLEGIO OFICIAL
DE ARQUITECTOS
VASCO-NAVARRRO
EUSKAL HERRIKO
ARKITEKTOEN
ELKARGO OFIZIALA
GIPUZKOA

- Egileak Instagrameko kontua badu, bere erabiltzailea zein den adierazi ahal izateko du, artxiboa Elkargoko kontuan argitaratzen denean etiketatu ahal izateko.
- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru proposamenekin parte hartu ahal izango du.
- Jasotako proposamen guztiekin bilduma bat egingo dugu eta Instagramen *historia* bat argitartuko dugu abenduaren 3an.

Sariak

Epaimahaiak hiru irabazle hautatuko ditu, eta sariak honako hauek izango dira:

- Lehen saria: Bi lagunentzako afaria edo bazkaria Gastronomika Elkartean + oparia sorpresa.
- Bigarren saria: Opari sorpresa
- Hirugarren saria: Opari sorpresa

Epeak:

- **Abenduak 2**: Lanak aurkezteko epearen amaiera
- **Abenduak 3**: Epaimahaiaren bilera eta sarien ebazpena. Saridunei mezua bidaliko zaie ebazpenaren emaitzarekin. Gainera, Gipuzkoako EHAE Oren webgunean eta Instagram kanalean emango da ebazpenaren berri.

Parte-hartzaileak, parte hartzaileen eskubideak eta betebeharrak

- Gipuzkoako Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko kideek, langileek eta hauen guztien senitartekoek parte hartu ahal izango dute.
- Argitaratze eskubideak: Lehiaketara aurkezten diren proposamenak Gipuzkoako EHAE Oren menpe geldituko dira, eta bere kanalen bidez argitaratzeko aukera izango du, betiere egiletza aitortuko delarik.

- Aurkezten diren proposamenetan adin txikiko pertsonak azaltzen badira, haien tutoren baimena dutela ziurtatuko da. Proposamenaren egileak izango du erantzukizuna.
- Lehiaketan parte-hartzeak oinarri guztiak onartzea inplikatzeko du.